



Azpeitiko Udala

**2024KO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK ETA
DEIALDIA: 2.B) ESKOLA KIROLA: TOKIKO PROGRAMAK
FINANTZATZEKO ESKOLENTZAKO DIRULAGUNTZA ZUZENAK -2024.
EKITALDIA (24-12D.2B)-.**

Alkatetzak 2024ko maiatzaren 13an emandako Ebazpenaren bidez 2024ko dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartu zituen. Oinarri hauen xedea Udalaren eskumenak eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ezarritakoaren arabera 2024. ekitaldian dirulaguntzak emateko prozedura arautzea da, esparru ezberdinetan udal-jarduera eta/edo programa osagarriak garatzeko (GAO 2024ko maiatzaren 23an argitaratua 99.zk).

Esparru horietako bat da jarduera fisikoa eta kirola. Azpeitiko Udalaren helburua da jarduera fisikoa eta kirol-praktikaren bitartez Azpeitiko ikastetxeetako 6 eta 12 urte bitarteko ikasleen hezkuntza-garapen egokia osatu ahal izatea. Horretarako, kirol anitzeko programa eta esperientziak bermatu, hezkuntza-garapena eta prestakuntza prozesua lehenetsiz epe motzeko emaitzaren aldean. Lortu nahi diren ondorioak dira; batetik, jarduera fisiko eta kirol-praktika beren bizitzetan errotzea, eta bestetik, aisialdi aukerak eta bizimodu osasuntsuak ahalbideratzea.

Azpeitiko ikastetxeek 2023-2024 ikasturtean egiten dituzten eskola kiroleko jarduerak ezarri eta garatu ditzaten, deialdi bidezko laguntza zuzenak ematea da programa honen helburua; horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako laguntza-programa gauzatuko da.

Dirulaguntzaren deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2024ko maiatzaren 23an argitaratu zen, bata Udalaren Webgunean ere.

Eskaerak aurkezteko epealdian, guztira 3 ikastetxek egin dute eskaera, eta guztiek bete dituzte onuradun izateko baldintzak. Modu berean, jardueraren justifikazioa aurkeztu dute.

Aurkeztutako eskaerak baloratzeko oinarri espezifikokoak jasotako prozedura eman da. Horrela, Kirol Saileko teknikariak dagokion instrukzioa egin ondoren, ebaluazio-txostena luzatu dio Udaleko Kirol Batzordeari, eta honek 2024ko ekainaren 26an egindako bilkuran laguntza ebazteko proposamena egin dio Alkatetza honi. Ebaluazio txostenak ikastetxe bakoitzak aurkeztutako justifikazioa kontuan izanik behin betiko laguntza zehaztu du.

Zuzen irizten da Batzordeak egindako proposamena. Dagokigun aurrekontuan dirulaguntza horietarako behar adinako kontsignazioa badago 1.0500.481.341.00.01 2024 Transferentzia arruntak eskola kirola gastu partidan.

Eskumenari dagokionean, Laguntzaren oinarriak, eta Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikuluan dioenaren arabera, **ERABAKI DUT:**



Azpeitiko Udala

Lehen: 2.B) Eskola Kirola programaren baitan (2024ko deialdia) honako ikastetxeei laguntza ematea:

Espedientea	2023-2024 ikasturtea	Udal dirulaguntza
2024ESKI0001	Iraurgi ikastetxea	7.338,89 €
2024ESKI0002	Zutarri Guraso Elkartea	21.982,08 €
2024ESKI0003	Azpeitiko Ikastola Ikasberri Koop	10.679,03 €
	GUZTIRA	40.000,00 €

Bigarrena: Ebazpen honekin batera goiko taulan jasotako ordainketa egingo da.

Hirugarrena: Emandako laguntzaren publizitatea egingo da Udalaren Web orrian eta laguntzen Erregistro Orokorrean.

Laugarrena: Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, ADMINISTRAZIO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek zuzenean Donostiako administrazioarekiko auzietako epaitegian. Horretarako, BI HILABETEKO epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hala ere, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko alkate honi HILABETEKO epean.

Azpeitia, 2024ko uztailearen 5a
ALKATEAK

